



TRANTSIZIOAK

# Hitzez kontatutako argazki erakusketa



Itsaso Zubiria Etxeberria  
@itsasozubiria

Franco hil ondorengo urteetatik hasi eta gaur egunera artekoak irudi bidez kontatuta. Mimos egindako argazki erakusketa baten aurrean egon gara Hernanin. Garai haietako Euskal Herriko herri mugimenduaren gorabeherak, horiek Hernanin izandako bilakaera eta herriak jokatutako papera. Horixe azaldu digute azaroaren 30ean, Kultur Etxean, ARGIAk eta Hernaniko Euskararen EgunaK ekimenak elkarlanean antolatuta.

*Trantsizioak. Euskal Herriko historia hurbilari begirada selektiboa* erakusketa ARGIAko argazki artxibotik bildutako irudiz osatuta dago, paneletan gaika banatuta. Hernanin Urko Apaolazaren azalpenak lau lagunek osatu eta historia herrira gerturatu dute: Ixiar Pagoagak (Hernaniko Berdintasun Kontseiluko kidea) eta Horten Bañosek Euskal Herriko eta Hernaniko mugimendu feministaz hitz egin dute, Agustin Ezpondak (Hernaniko alkate-ohia) orduko langile mugimenduaz eta Hernaniko Orbegozo lantegiak, eta Pello Zubiriak (ARGIAko

kazetaria) euskal prentsaren bilakaeraz eta *Hernaniko Kronikaz*.

“Garaipe txiki eta ez horren txikiak izan dira 70eko hamarkadatik hona, nahiz eta asko dagoen egiteko”, azaldu du hizlarietako batek. Baina kurioa da aldarrikapen batean baino gehiagotan argazkiari begiraturuz urteek aurrera egiten ez dutela iruditzea. Feminismoaren borroka nagusietako bat izan da abortu librea, eta tamalez gaur egun oraindik ere bada, eta ikusi 80ko hamarkadako manifestazio bateko eskuak eta 2014an Iruñean egindako agerraldi jendetsukoak, eta argazkiaren kolore-kalitateak besterik ez ditu egiten desberdin.

### Zure herrian antolatu nahi?

Erakusketa zure herrian paratu eta bertako gairen batzuk herriko eragileek azaltzea, hori da erakusketa honen planteamendua. Antolatzeko interesa duen talde edo norbanakoak jarri harremanetan: [sustapena@argia.eus](mailto:sustapena@argia.eus) -era idatzi edo 943 37 15 45 -ra deituta. ■

“Euskalduntzen hasi nintzenean kandelatxo bat izan zen niretzat ARGIA, ikas tresna. Euskalgintzan murgildu ahala, militantziarako tresna. Duela urte gutxi, bere informazio kalitateari erreparatzen hasi nintzen. Azken urteotan, ARGIAren proiektuari erreparatu diot. Eta zerbait harrotu zen nire baitan. Nire lorategi xumeko lorerik ederrenetakotzat maitatzen hasi naiz ARGIA”

Iñaki Kasares,  
ARGIAko harpideduna



### Eman ARGIA berrituaz zure iritzia:

- Sare sozialetan #argiaeraberritua traola erabilia.
- emailz [harpide@argia.eus](mailto:harpide@argia.eus)-era idatzita.



### Proposatutako ARGIA Sarietarako hautagaiak:

- Bidali [harpidetza@argia.eus](mailto:harpidetza@argia.eus)-era alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekin-tza eta merezimenduzkoa.

## AGENDA

### Pirritx eta Porrotxen Amalur lan berriaren aurkezpen emanaldia, ARGIAren alde

- ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldeak, urtero bezala pailazoan emanaldia antolatu du.
- Abenduaren 19an, larunbata, 17:00etan Usurbilgo Oiarde Kiroldegian.
- Sarrerak eskuragai: ARGIAra deituta; Usurbilgo Bordatxo eta Marije tabernetan; Lasarteko Artizar tabernan; Hernaniko Leokadisti liburu dendan; Urnietako Ezeiza Etxean; Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolan eta Astigarragoako Ikatza tabernan.